

EH BILDU

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA,

Martutene auzoko eskola inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza López de Samaniegok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko ekainaren 13an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 24an 13:10ak inguruan Martutenerako norabidean zihoan auto bateko gidariak kontrola galdu zuen eta Arantzazuko Ama ikastolaren hesiaren kontra joan zen. Zorionez, ez zen zauriturik izan, baina azken istripu horrek eskola komunitatearen eta bizilagunen haserrea areagotu zuen eta Udal Gobernuak neurriak hartzera deitu zuten. 2022ko otsailean, udalbatzarrera eraman genuen Martuteneko Arantzazuko Ama eskolan gertatutako istripua.

Udalbatzarrean, zinegotzi ordezkariak eskolarekin elkartuko zela eta zenbait neurri hartuko zituela esan zuen; Udal Gobernuak esan zigun premiazko esku-hartze bat egingo zuela trafikoa baretzeko. Inongo neurririk hartzen ez zela ikusirik, eta ikasturtea bukatzen ari zela ikusirik, berriro ere beste interpelazio bat eraman genuen gai berarekin ekaineko batzordeetara.

Ekaineko batzordean, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun neurri batzuk ari zirela aztertzen eskola ingurua baretzeko; hala nola, espaloia zabaldu, semaforoak mugitu, pisu handiko garraioaren trafika debekatu...

Baina oraingoan ere zazpi hilabete igaro dira, beste bi ezusteko izan dira, eta Udalak ez du

EH BILDU

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

inolako neurri zuzentzailerik hartu Arantzazuko Ama eskolako haur, guraso eta irakasleen segurtasuna bermatzeko. Eta jada 2022/2023 ikasturtean sartu gara eta eskolak hasi dituzte berriro ere.

Martutene auzoak bizi duen egoeraz jabeturik, Martuteneko familiek Martutene Bizirik ekimena abian jarri zuten, beren auzoa utzita dagoela salatzeko eta auzo duin baten aldeko aldarria egiteko. Hainbat ekimen egin dituzte hilabete hauetan. Bere garaian aipatu genuen, eta gogorarazi nahi genuke, eskolarekin izandako ezustea ez dela Martutenek duen arazo edo gabezia bakarra. Hortaz, lehenbailehen Martutenek dituen eskaerei erantzun bat emateko beharra ikusten dugu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udaltzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Martuteneko Arantzazuko Ama eskola ingurua baretzeko neurriak har ditzala urtea bukatu aurretik (hala nola, espaloia zabaldu, semaforoak mugitu, pisu handiko garraioaren trafikak debekatu...), bertako eskola komunitatearen segurtasuna bermatzeko.

Donostian, 2022ko urriaren 20an

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia